

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

858

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 5ekoa, Nazioartekotzeko zuzendariarena, 2013ko Prointer nazioartekotze-programaren barruan Jani Markel International, SL enpresari baldintzak ez bete-tzeagatik irekitako espedientearen ebazpena (48-Af-G-2013-0175).

Jani Markel International, SL enpresari diru-laguntza bat eman zitzaion Prointer nazioartekotze-programa garatzen duen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko otsailaren 24ko Aginduaren babesean. Espediente hura aztertuta, honako espediente hau ireki da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen 2012ko otsailaren 22ko Ebazpenaren bidez, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko otsailaren 24ko Aginduan ezarritako laguntzak emateko deialdia eman zen argitara 2013ko ekitaldirako. Agindu horren bidez, Prointer nazioartekotze-programa garatzen da, enpresak atzerrian sustatzeko eta ezartzeko laguntza-programa.

Bigarrena.– Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Nazioartekotzeko zuzendariak, 2013ko abenduaren 30ean, Jani Markel International, SLri laguntza emateko ebazpena eman zuen, kanpo-sustapeneko jarduerak eta ekintzak burutu zitzaizkion eta nazioartekotze-plana abian jar zezan; laguntza horiek 2.802,55 euro eta 5.469,01 eurokoak izan ziren, hurrenez hurren. Ebazpen horretan ezartzen zen, era berean, esleitutako diru-laguntzaren % 25 ordainduko zela, kasu honetan 2.067,89 euro, emandako laguntza onartutakoan edo, bestela, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko otsailaren 24ko Aginduko 27.1 artikuluan zehaztutako 15 eguneko epea igarotakoan (agindu horren bitartez, Prointer nazioartekotze-programa garatzen da).

Hirugarrena.– 2014ko otsailaren 28an, hau da, diruz lagundutako ekintzak justifikatzeko epearen azken egunean, «Jani Markel International, SL» enpresak aurkeztu gabe zituen, Bizkaiko Lurralde Bulegoan, diru-laguntzaren bigarren zatia ordainketa egiteko beharrezkoak ziren ziurtagiriak.

Laugarrena.– Jasotako dokumentazio guztia aztertuta, ikusi da enpresak ez duela justifikatu % 25eko aurrerakina (2.067,89 eurokoa), ebazpena onartutakoan jaso zuena.

Bosgarrena.– 2014ko uztailaren 24an, ez-betetze espedientearen ireki zitzaion Jani Markel International, SL enpresari.

Seigarrena.– Alegazioak aurkezteko epea igarota, Jani Markel International, SLk ez du aurkeztu espediente honen ebazpena ekarri duten gertakarien aurkako alegaziorik.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Nazioartekotzeko zuzendariaren eskumena da baldintzak ez betetzeagatik espedientearen hasiera, hala ezarrita baitago Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko otsailaren 24ko Aginduaren 25.3 artikuluan (agindu horren bidez, enpresak atzerrian sustatzeko eta ezartzeko ekintzak laguntzeko Prointer nazioartekotze-programa garatzen da).

Bigarrena.– Prointer programa garatzen duen Aginduaren 23.1 artikulua honako hau ezartzen du:

«Diru-laguntza ordaintzeko, Nazioartekotzeko zuzendariaren administrazio-ebazpena beharko da, eta bi ordainketaren bidez egingo da: emandako diru-laguntzaren % 25 laguntza onartzen denean edo, hala dagokionean, agindu honen 27.1 artikuluan ezarritako hamabost eguneko epea igarotakoan, eta gainerako % 75a lagundutako ekintzak burutzeko izandako gastuak egin izana justifikatu ondoren ordainduko da».

Hirugarrena.– Prointer programa arautzen duen Aginduaren 23.5 artikulua xedatzen duenez, aurkeztutako dokumentu guztiak egiaztatu ondoren egingo da bigarren ordainketa. Halaber, ordainketa egiten den egunean, agindu horren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da aipatutako egiaztatzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen onuradunen zerga-betebeharrak betetzeari buruzko Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan edo agindu hori ordeztuko duen araudian ezarritako kasuetan. Urriaren 7ko Aginduak exijitzen duenez, diru-laguntza ematea erabakitzen den ekitaldiaren ondorengo beste ekitaldiren batean ordainketaren bat egin behar bada, eta hiru hilabete baino gehiago igaro badira diru-laguntza ematea erabaki denetik, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatu beharko du onuradunak, ondorengo ekitaldietako lehenengo ordainketa-proposamenak egin aurretik.

Laugarrena.– Agindu beraren 25. artikulua arabera, enpresa onuradunak ez baditu betetzen ez Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53. artikuluan xedatutakoa, ez eta agindu honetan eta aplikatu daitezkeen gainerakoetan ezarritako betebeharrak eta, hala badagokio, ebazpenean ezarriko diren baldintzak ere, organo eskudunak ez-betetzeagatik txostena egingo du, eta interesdunaren arazoak entzungo ditu. Jarraian, ebazpena emango du, eta, han, onuradunak diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu duela adieraziko du, baita jasotako laguntzak eta legeko interesak Euskadiko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen berme eta itzultzei buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera, eta alde batera utzi gabe egokitzat jotzen diren gainerako ekintzak. Aipatutako diru-kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

Bosgarrena.– Jani Markel International, SLk aurkeztutako justifikazio-agiriak aztertuta, egiaztatuta geratu da ez direla bete diru-laguntza jasotzeko ezarritako betebeharrak.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deklaratzen da Jani Markel International, SL enpresak ez dituela bete Prointer programaren araudian ezarritako baldintzak, ez baititu diru-laguntzaren xede diren ekintza guztiak justifikatu horretarako emandako epean. Prointer programaren bidez, euskal enpresak atzerrian sustatzeko eta ezartzeko laguntzak ematen dira.

Bigarrena.– Deklaratzen da, halaber, enpresa horrek behar ez bezala jasotako 2.067,89 euroko zenbatekoa itzuli beharra duela 2 hilabeteko epean. Hartara, baldintzen betetze-mailara egokitzen da 2012ko abenduaren 12ko Ebazpenaren bidez hasiera batean emandako diru-laguntza.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 5a.

Nazioartekotzeko zuzendaria,
MARÍA AINHOA ONDARZABAL IZAGUIRRE.